

Arnas gutxiegitasun akutuaren kasuan sudurreko fluxu altuko kanularen erabilerak intubazio orotrakeal tasa gutxitu dezake

Intubazio orotrakeal tasak gutxitu daitezke, fluxu altuko sudurreko kanula oxigeno konbentzionalaren ordeaz erabiltzen bada, baina ez dute CMIko hilkortasun-tasa edo egonaldi ertaina gutxitzen.

Jatorrizko erreferentzia

Ni YN, Luo J, Yu H, Liu D, Ni Z, Cheng J, Liang BM, Liang ZA. Can high-flow nasal cannula reduce the rate of endotracheal intubation in adult patients with acute respiratory failure compared with conventional oxygen therapy and noninvasive positive pressure ventilation?: a systematic review and meta-analysis. Chest. 2017 Apr;151(4):764-775. doi: 10.1016/j.chest.2017.01.004.

Kritikoki aztertutako testuaren egilea

Cristina Agirre Rodríguez
cristina.aguirrerodriguez@osakidetza.eus

Galderak (PICO)

- Pazientea: arnas gutxiegitasun akutua.
- Esku-hartzea: fluxu altuko sudur-kanula.
- Konparazioa oxigenoterapia konbentzionalaren erabilera edo VMNIa.
- Emaitza: intubazio-tasa, arnas gutxiegitasunaren hobekuntza, heriotza, aurkako efektuak.

Bilaketaren estrategia

Hitzak: fluxu altuko sudur-kanula, arnas gutxiegitasun akutua

Datu-baseak: UpToDate, TripDataBase, EE+, Cochrane Library, Beste batzuk: Dynamed, University of York, FOM-MBE

Ikerketa

Entsegu kliniko berrikuspen sistematikoa da. Bilaketa: entsegu kliniko erregistroa, literatura grisa, Cochrane Library, Medline, Embase, erreferentzien jarraipena.

Ez dago hizkuntzaren murriztapenik.

Aurkitutako artikulak: 776

Barne dauden artikuluen kopurua: 18

Paziente kopurua guztira: 3.881

Balorazio kritikoa

Bi ikertzaileek hautatutako artikulak. Bi ikertzaileek datuak atera dituzte. Kalitatezko irizpideak betetzen dituzte. Argitaratze-isuririk ez dago. Heterogeneotasunaren balioztatzea badago. Emaitzak efektu aleatorio modeloarekin konbinatzen dituzte. Metarregresioa erabiltzen dute. Ez da ondo aztertzen sentsibilitate-analisia. Azpitaldeko analisia egiten dute: intubazio orotrakealaren ondorengo emaitzak.

Cristina Agirre Rodríguez

Probak

Outcome	OR	NNT
Intubazio orotrakeala : fluxu altuko sudur-kanula vs oxigenoterapia konbentzionalaren erabilera	0,47 (0,27 - 0,84)	17 (12 – 59)
Intubazio orotrakeala: fluxu altuko sudur-kanula vs VMNIa	0,73 (0,47 - 1,13)	

OR: odds ratio**NNT :** number needed to treat (tratatzeko beharrezkoa den paziente kopurua)**Iruzkina:**

-Ikerketa ez da itsua, beraz, kalitatea ez da ona.

- IOT eta CMIn hilkortasunean heterogeneotasuna dago fluxu altuko kanula eta VMNIa konparatzen bada, baina ez oxigenoterapiarekin konparatzen bada.

-Heterogeneotasunik ez dago egonaldi ertaina ikertzen denean.

-Post Hoc ikerketa bat egiten da: fluxu altuko sudur-kanula duten pazienteek berrintubazio-tasa txikiagoa daukate O₂ konbentzionalarekin konparatzen badugu, baina VMNIarekin konparatzen bada, ez da hori ikusten.

- Fluxu altuko sudur-kanularen erabilerak oxigenazioa eta arnas dinamika hobetzen ditu, arnas lana gutxitzen du eta torax–abdomenetako sinkronia hobetu.

-CO₂-aren maila jaisten da faringean dagoen espazio hila garbitzen duelako.

- Albeoloen errekrutatzea gertatzen da, kolapsoa gutxituz, bentilazio-perfusioa hobetuz PEEPa 2-5 cm H₂Okoa delarik.